



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEAREN EGOITZA BERRIA ALTZARIZ
HORNITZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN LEHIAKETA
ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA**

1ª TRAMITATZEKO ERA

Ohikoa edo arrunta.

2º KONTRATUAREN XEDEA

Lehiaketa bidez erabakiko den esleipenak, Debagoieneko Mankomunitatearen egoitza berria altzariz hornitzea izango du helburu, Baldintza Teknikoen Agirian jasotako espezifikazioen arabera.

3º HORNIGAIA EMAN ETA JARTZEKO EPEA

Hornigaia eman eta jartzeko epea 45 egunekoa izango da, esleipenaren jakinarazpenaren biharamunetik zenbatuta.

Epe hori igarotzean kontratista berandutzan sartuko da, eta ez da Mankomunitatearen aldetik ohartarazpenik egin beharko.

Hornigaia eman eta jartzea Zaldibar eraikinean egingo da: Arrasateko Nafarroa Etorbidean dago, 17, 19 eta 21ean.

4ª LIZITAZIO-PREZIOA

Lizitazio-prezioa, BEZ barne, 160.000 €-koa izango da.

Prezio horiek hobetu egin ditzakete lizitatzailerak beren eskaintzetan.

Aurkezturiko proposamenetan sartuko da ez bakarrik hornigaiaren prezioa, baita BEZ-aren zenbatekoa ere, eta garraio- eta instalazio-gastuak, eta, oro har, hornigaiaren ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak. Iragarki-gastuak ere hor sartuko dira.

Halaber, esleipenduna konprometitzen da bere eskaintza ekonomikoan zehazturiko prezio unitarioak Mankomunitateak detektaturiko altzari-premia berrietan aplikatzea, eskaria urtebeteko epean egiten bada kontratu hau izenpetzen denetik aurrera.



5ª FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko badago aski kreditu Mankomunitateak 2008ko ekitaldirako duen Aurrekontuan.

6º ALDAERAK

Ez da aldaerarik onartuko.

7º ORDAINTZEKO ERA

Hornigaiaren prezioa eman eta hartzean ordainduko da, aurrez dagokion faktura aurkeztuta, eta hori horniduraren ardura duen pertsonak ikuskatu eta kontrastatuko du, eta organo eskudunak onartu.

8º PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan ez da preziorik berrikusiko.

9º BERMEAK

Behin-behinekoa: Enkantean parte hartzeko behin-behineko bermea aurkeztu behar da, 3.200 €-koa, eta hori enkante-eskaintzaileei itzuliko zaie kontratuaren esleipena egin ondoren edo lizitazioa esleitu gabe uztea erabaki ondoren.

Bermea atxiki egingo zaio esleipendunari eta bahitu enpresei, arrazoirik gabe beren proposamena erretiratzen badute esleipena egin aurretik.

Behin betikoa: Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko, beharturik dago behin betiko bermea aurkeztera, 6.400 €-koa.

Berme hori eratzeko epea hamabost egun naturalekoa izango da, esleipendunari hori jakinarazten zaion egunaren biharamunetik zenbatuta.

Bermeen prestazioa, eraketa eta efektuak, erantzukizunak eta itzultzea Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginak 35-47. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo da (2/2000 L.E.D.).

10ª KONTRATATZEKO GAITASUNA

Lizitazio honetan pertsona natural edo juridikoek, espainiar edo atzerritarrek, parte har dezakete, jarduteko gaitasun osoa baldin badute, beren ekonomia-eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzen badituzte.

Inola ere ezingo dute Mankomunitatearekin kontraturik egin Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginak 20. artikuluan kontratatzeko ezartzen dituen debekuetan sartuta daudenek (2/2000 L.E.D.).



11^a PUBLIZITATEA

Prozedura ireki bidezko lehiaketa denez, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginak 78. artikuluan xedatutakoaren arabera emango zaio publizitatea eta GAO/BOGen argitaratuko da.

12^a DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK

1. DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK

1. Eskaintzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Enpresa elkartuek ezingo dute banakako proposamenik aurkeztu eta, hori egiten badute, ez zaizkie onartuko ez banakakoak eta ez elkar-tearenak.
2. Proposamenak bi gutun-azaletan aurkeztuko dira, barruan ondorengo agiriak sartuta:

1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA

1.- 1. gutun-azalean, hauek sartuko dira:

- a) Enpresaburuaren eta, hala balegokio, bere ordezkariaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak.

Nortasuna honela egiaztatuko da:

Enpresa pertsona juridikoa baldin bada, eraketa-eskritura edo, hala badagokio, aldaketa-eskritura aurkeztu behar du, Merkataritza Erregistroan inskribatua, hau eska dakiokkeen betebeharra baldin bada aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera. Ezin bazaio eskatu, jarduteko gaitasunaren egiaztatzea eraketa-eskritura edo agiriaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren bidez egingo da, horietan agertzen badira bere jarduera erregulatzen duten arauak, hala balegokio, bere Erregistro ofizialean inskribatuak; enpresaburuak espainiarrak ez direnean baina bai Europako Erkidegoko kide diren estatuetako kideak, aski izango da Erregistro Profesional edo Komertzial batean izena emanda daudela egiaztatzea, bere estatuko legeriak betebeharrak hori eskatzen badu. Gainerako enpresaburu atzerritarrek beren estatuan dagoen Espainiako Enbaxadak egindako ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna.

Eskaintzaileak bere izenean badihardu, nortasun-agiria (NAN) aurkeztu behar du edo bere estatuan dagoen baliokidea.

Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak izenpetzen dituztenek NANen kopia aurkeztu behar dute, baita horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa baldin bada, ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar du.

Proposamena enpresa-talde batek aurkezten badu, guztien ordezkari legalek izenpetutako agiria aurkeztu behar da gainera, non bakoitzak Aldi Bateko Enpresa Elkartean parte hartzen duela adieraziko baita, eta pertsona bat izendatuko da



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

kontratuak iraun bitartean guztien erabateko ordezkaria izateko Administrazioaren aurrean.

Agiri horiek guztiak jatorrizkoak izango dira edo behar bezala egiaztaturiko kopiak.

b) Kontratatzeko debekuetan sartuta ez dagoela izendatuki aitortzea, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Herri Administrazioen Kontratu Legearen testu bat-egina onartzen duenak, 15-20. artikuluetan ezarritakoaren arabera; baita ere, zergak eta Gizarte Segurantzako ordainketak eginak dituela aitortzea, martxoaren 1eko 390/1996 Errege Dekretuak ezartzen duen norainokoarekin eta eran, nahiz eta aurkeztu beharko duen Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoelako agiria, eta, hala balegokio, azken ordainagiria.

Zerga eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzeako agiria kontratua izenpetu baino lehen aurkeztu behar du esleipendunak.

c) Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren egiaztagiria.

Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren justifikazioa ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, Herri Administrazioen Kontratu Legearen testu bat-egina onartzen duenak, 16. artikuluan ezartzen duenaren arabera egingo da, ondorengo agiriak aurkeztuz:

- Finantza-erakundearen txostena.
- Lanbide-arriskuengatik kalte-ordainetarako aseguru dagoela egiaztatzen duen agiria.

d) Kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzeako bitartekoak, eta hautatzeko irizpideak.

- Azken hiru urteetan egindako hornitze garrantzitsuenen zerrenda, hor sartuta horien zenbatekoa, datak eta bezero publiko ala pribatuentzat izan diren; beraiei dagozkien ziurtagiriak erantsiko dira.
- Lan-talde teknikoaren deskribapena, kalitatea ziurtatzeko hornitzaileak erabiltzen dituen neurriak, eta azterketa eta ikerketarako enpresak dituen baliabideak.

e) Behin-behineko bermea eratu duelakoaren frogagiria.

Kontratuaren inguruan zuzenean edo zeharka sor litekeen edozein gorabeheratarako, atzerriko enpresek aitortzen bat aurkeztu behar dute Espainian edozein mailatako auzitegi eta epaitegien eskumenean jartzen direla adieraziz, eta, hala balegokio, beraiek atzerrian izan lezaketen foru jurisdikzionalari uko egin diotela adieraziz.

2.- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratu eta Kontratisten Erregistroen Erregelamendua onartzeko urriaren 14an eman zen 223/86 Dekretuak arauturiko Kontratista Erregistroan inskribaturik dauden enkante-eskaintzaileek 1. ataleko a) eta b) agirien ordezkariaren arduradun den legegaria eginiko ziurtagiria aurkez dezakete.



2. GUTUN-AZALA: "PROPOSAMEN TEKNIKOA ETA PROPOSAMEN EKONOMIKOA". Hemen ondorengoak sartu behar dira:

2.a) Proposamen teknikoak:

- Ondasunen deskribapen tekniko argia eta zehatza, bertan zehaztuz marka, mota eta modeloa.
- Laginak, deskribapenak, planoak, argazkiak eta ekarriko diren produktuen kalitatea ezagutzeko beharrezko jotzen diren agiri guztiak.

2.b) Proposamen ekonomikoa:

- Eskaintza ekonomikoa ondorengo ereduaren arabera:

“..... jaunak/andreak (.....(e)n bizi dena eta N.A.N.-zka. duena) bere izenean edota(r)en orde(z) (honen egoitza sozialada, eta NAN/DNI edo CIF zka.), jarduteko gaitasun juridiko oso-oso(a) dudalarik, Debagoieneko Mankomunitatearen egoitza berria altzariz hornitzeko lehiaketan izango diren administrazio-klausula partikularren eta baldintza tekniko(en) berri izan ondoren,

ADIERAZTEN DUT:

1^a) Aipaturiko Baldintza Agirien arabera, horniketa hori egitera konprometitzen naizela prezio honetan: (letra eta zenbakitan)euro.

2^a) Halaber, nire eskaintza ekonomikoan zehazturiko prezio unitarioak Mankomunitateak detektaturiko altzari-premia berrietan aplikatzera konprometitzen naizela, eskaria urtebeteko epean egiten bada kontratu hau izenpetzen denetik aurrera.

3^a) Ezagutzen ditudala Baldintza Teknikoak eta Administrazio-Klausula Partikularrak eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, espresuki neure gain hartu eta onartzen ditudalarik oso-osorik.

4^a) Nik ordezkatzeko dudako enpresak indarrean dagoen araudiak eskaturiko baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela kontratu hau egiteko.

5^a) Halaber, lan eta zerga gaietan legeek edo arautegiek diotena betetzera konprometitzen naizela.

.....(e)n, 2008koaren(e)an

Sinadura



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Unitateko prezioen zerrenda

Ezinbestekoa da eskaintza bakoitzean sartzea Preskripzio Teknikoen Agirian zerrendatzen diren artikuluko guztiak eta bakoitza.

1. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.- Aipatu diren gutun-azal horiek Debagoieneko Mankomunitatearen Sarrera Erregistroan —Arrasate pasealekuko 5-behean, Arrasaten— aurkeztu behar dira 15 egun naturaleko epean, lizitazio-iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo lehen egunetik zenbatuta.

Enkante-eskaintzaileak bere proposamena postaz bidaltzen badu, Postetxean bidalketa egin duen eguna justifikatu behar du eta egun berean eskaintza bidali duela jakinarazi Kontratazio Organoari telex, telefax edo telegrama bidez. Bi baldintza horiek ez badira betetzen edo bidalketaren jakinarazpena proposamenak jasotzeko epea igaro eta gero hartzen bada, eskaintza ez da onartuko. Bestalde, aipaturiko dataren ondoren hamar egun natural igaro eta proposamena ez bada iristen, ez da inola ere onartuko.

2.- Gutun-azalak itxita eta egoki izenpetuta aurkeztuko dira; gainean lehian parte hartzen duen enpresaren (edo enpresen) izena eta **“Debagoieneko Mankomunitatearen egoitza berria altxariz hornitzeko lehiaketa”** inskripzioa izango dute.

Gutun-azal bakoitzean, gainera, bere edukia adieraziko da, honela:

1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA
2. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN TEKNIKOA ETA PROPOSAMEN EKONOMIKOA

13^a PROPOSAMENAK IREKI ETA AZTERTZEA

Kontratazio Mahaiak aurrez kalifikatuko ditu bere garaian eta era egokian aurkezturiko agiriak, eta akats materialik edo formazkorik aurkitzen badu, ahalmena izango du, komenigarri iruditzen bazaio, hiru lan-egun arteko epea emateko, eskaintzaileak akats hori zuzendu dezan.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondorengo bosgarren lanegunean, eta egun hori larunbatean suertatzen bada, hurrengo astelehenean —salbu eskaintzailearen batek bere eskaintza postaz bidali duenean, kasu honetan Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrak 80. artikuluan ezartzen duen epea bukatu ondorengo lehen lanegunean egingo baita— goizeko hamarretan irekiko dira gutun-azalak. Irekitze-ekitaldia jendaurrean egingo da, Debagoieneko Mankomunitatearen gela batean.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Ekitaldia hasteko, 1. gutun-azalean aurkezturiko dokumentazioaren egiaztatzeak eman duena adieraziko da eta, dokumentazio horri buruz beharrezko adierazpenak egin ondoren, baztertu gabeko eskaintzaileen 2. gutun-azalak irekiko dira, eta beroriek proposaturiko eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

Jendaurreko ekitaldia bukatu ondoren, aurkezturiko proposamenei buruz irizpen teknikoa emango da eta Kontratazio Mahaiak lehiaketa esleitzeko proposamena egingo dio Mankomunitateko organo eskudunari.

Esleipena egiten denetik hiru (3) hilabeteko epea igaro ondoren, eskaintzaileek aurkezturiko dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake Administrazioak, beraiek ez badute berriro jaso.

Kontratazio-organoak aukera izango du alternatiboki kontratua proposamen onuragarrienari esleitzeko hurrengo klausulan ezarritako esleitze-irizpideak aplikatuz, edota esleitu gabeko uzteko; nolana ere, bere erabakia motibatuz egin behar du baldintza-agirian ezarritako esleitze-irizpideei buruz.

14^a ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Balioesteko irizpide objektibo hauek kontuan izanda esleituko du lehiaketa kontratazio-organoak, garrantzi gehienekotik gutxienekora daudelarik, eta dagokien ponderazioarekin.

1. **Eskainitako produktuen kalitatea**, gehienez 60 punturaino:

Eskainitako altzarien funtzionaltasuna, ergonomia, erresistentzia, iraunkortasuna eta oro har kalitatea balioetsiko dira.

2. **Eskaintza ekonomikoa**, gehienez 35 punturaino:

Eskaintza ekonomikoen puntuazioa kalkulatzeko hiru tarte bereiztuko dira:

- **Lehen tarte**: Lizitazio prezioetik egindako **%0etik %10era arteko jaitsiera**: tarte honetan **5 puntu** emango dira era proportzionalean.
- **Bigarren tarte**: Lizitazio prezioetik egindako **%10etik %25era arteko jaitsiera**: tarte honetan **10 puntu** emango dira era proportzionalean.
- **Hirugarren tarte**: Lizitazio prezioetik egindako **%25etik %45era arteko jaitsiera**: tarte honetan **20 puntu** emango dira era proportzionalean.

Printzipioz, neurrigabetzat edo ausarkeriatzat joko da onarturiko proposamen guztien beharrezko-ehunekoen batez besteko aritmetikoa 30 unitatetan gutxienez gainditzen duten proposamenen beharrezkoa, eta hori horrela jotzeko, horretan ustez sarturik dauden eskaintzaile guztiei informazioa eskatuko zaie aurrez, baita dagokion Zerbitzuari aholkularitza teknikoa ere.



3. **Bermea eta salmenta osteko zerbitzua**, gehienez ere 5 punturaino:

Berme-epea eta salmenta osteko zerbitzuaren kalitatea balioetsiko dira.

15^a ESLEIPENDUNARI ESKATURIKO AGIRIAK

Kontratuaren esleipena jakinarazi ondorengo egunetik zenbatuta, hamabost egun naturaleko epean, esleipendunak ondorengo agiriak aurkeztu behar ditu:

- Behin betiko bermea aurkeztu duela egiaztatzen duen agiria.
- Hasieran ausarkeriazko presuntzioan egondako proposamena aurkeztu duen enpresaburu baten alde egiten bada esleipena, honek aurkeztu behar duen bermea esleipen-zenbatekoaren %20koa izango da, edota lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren %20koa, prezioa prezio unitarioen arabera erabakitzen bada.
- Iragarki-gastuak ordaindu dituela egiaztatzen duen frogagiria.

Esleipenduna enpresa-elkarte bat baldin bada, kontratua izenpetu aurretik, Aldi Bateko Enpresa Batasun gisa bere eraketa legala egiaztatu beharko du, eta bere IFK-CIF ere bai.

16^a KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua kontratazio-organo eskudunak egindako esleipenaren bidez burutuko da.

Kontratua administrazio-dokumentuan formalizatuko da hogeita hamar egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpenaren biharamunetik hasita, eta agiri hori aski titulu izango da edozein erregistro publikotara sartzeko.

Hala ere, esleipendunak kontratua eskritura publiko bihurtzea eska dezake. Kasu honetan, formalizazio-gastuak esleipendunaren bizkar izango dira.

17^a HARRERA ETA BERME-EPEA

Hornigaia ekarri eta HILABETERA egingo da bere harrera edo adostasunerako egintza formal eta positiboa.

Gutxienez BI URTEKO berme-epea ezarri behar da, hornigaia hartzen den datatik aurrera zenbatuta. Eskaintzaileek gehitu egin dezakete berme-epe hori beren eskaintzetan.

Epe horretan Mankomunitateak eskubidea izango du akatsak dituzten ondasunak birjarri edo, aski baldin bada, konpon diezazkioten.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Berme-epea igarotzen bada Mankomunitateak hornigaiaren konponketarik edo birjarpenik eskatu gabe, esleipenduna erantzukizunik gabe geratuko da hornitutako ondasunei dagokienez.

18^a KONTRATUAREN ALDAKETAK

Mankomunitateak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoagatik, premia berriak edo ustekabeko kausak sortzen direnean, eta kontratistak ez du inolako kalte-ordainetarako eskubiderik izango, betiere Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginak (2/2000 L.E.D.) 192.c) artikuluan ezartzen duenaren kalterik gabe.

19^a KALTEAK

Kontratistak eman behar du hornikuntzak eskatzen dituen eragiketen ondorioz eragiten diren kalteen ordaina, Herri Administrazioen Kontratu Legeak (2/2000 L.E.D.) 97. artikuluan xedatzen duenaren arabera. Horretarako erantzukizun zibileko poliza harpidetu beharko du, 600.000€-koa gutxienez.

20^a EPEAK ETA XEDEA BETETZEA. ZIGORRAK

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, atzeratu egin bada ezarritako epe partzialak betetzen, edota horiek betetzen daraman atzerapenak pentsarazten badu arrazoiz ezinezkoa dela epe osoa betetzea, edota hau ez badu bete, Administrazioak edo kontratua suntsitzea erabaki dezake edo Herri Administrazioen Kontratu Legeak (2/2000 L.E.D.) 95. artikuluan xedatzen dituen zigorrak jar ditzake.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehazturiko prestazioen egite partziala bete ez badu, Mankomunitateak, aipaturiko Legearen 95-6. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratua suntsitzea erabaki dezake, edota zigor hauek jartzea: 500€ atzeratzen den egun bakoitzeko.

21^a KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoi izango dira Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginak (2/2000 L.E.D.) 111, 95-6 eta 192 artikuluetan ezarritakoak.

Suntsiarazpenaren ondorioei dagokienez, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginak (R.D.L. 2/2000) 113 eta 193 artikuluetan araututakoaren arabera jokatuko da.



22^a KONTRATUAREN ARAUBIDEA ETA ESKUMENA

Kontratuak administrazio-izaera izango du eta honako hauek arautuko dute:

- Administrazio Klausula Partikularren agiri hau.
- Baldintza Teknikoen Agiria.
- 2/2000 L.E.D., Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- Ordezko izaeraz, Administrazio Zuzenbideko arau orokorrak erabiliko dira eta, horiek ezean bakarrik, Zuzenbide Pribatukoak.
- Kontratuari aplikatzen zaion araudia kontratistak ez ezagutzeak ez du hori bete behar izatetik salbuetsiko.
- Kontratuaren inguruko desadostasunak erabakitzeke ahalmena administrazioarekiko auzi-eskumenak izango du.
- Kontratuaren aplikazio edo interpretazioan, berori gauzatu, aldatu, bete edo deuseztatzean sortzen diren zalantzak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta horren akordio eta erabakiak berehala bete beharrekoak izango dira.

23^a KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaian hauek egongo dira:

Lehendakaria: - Mankomunitateko lehendakaria.

Kideak: - Mankomunitateko lehendakariordea.

- Mankomunitateko behin behineko idazkaria.
- Mankomunitateko behin behineko kontu-hartzailea.

Idazkaria - Mankomunitateko behin behineko idazkaria.

Arrasaten, 2008ko apirilaren 7an.

EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen 2008ko apirilaren 16an egindako bilkuran.

Arrasaten, 2008ko apirilaren 17an.

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

Izpta.: Belén Txintxurreta